

## KOSTUEN EGITURAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat gastu edo kostu izan behar ditugu kontuan. Kostuen egiturak azaltzen du zeintzuk diren gastu horiek eta nola banatzen diren. Gure kasuan, kostuak batez ere kostu finkoak eta kostu aldakorak dira.

### KOSTU FINKOAK

Kostu finkoak dira erabiltzaile kopurua handitu edo txikitu arren antzekoak izaten jarraitzen duten gastuak. Gure proiektuan, kostu finko nagusiak hauek dira: aplikazioaren diseinua eta garapena, zerbitzariak edo hostinga, segurtasun-sistemak eta lanerako behar diren ekipo informatikoak. Kostu hauek hasieran handiak dira, baina ezinbestekoak dira aplikazioa martxan jartzeko.

Gure aplikazioa iOS eta Android plataformetarako sortuko da, eta erabiltzaileek bideoak igo, elkarrekin interakzionatu, klaseak eman eta dirua irabazi ahal izango dute. Horrek barne hartzen ditu diseinua, garapena, backend-a, administrazio panela eta funtzionalitate aurreratuak.

Aurrekontu orientagarriak:

- **Diseinua:** 3.000 € – 10.000 €
- **App mugikorra** (iOS + Android): 30.000 € – 60.000 €
- **Backend-a eta zerbitzariak** (datuak kudeatzeko): 15.000 € – 40.000 €
- **Administrazio panela** (web): 5.000 € – 15.000 €
- **Funtzionalitate aurreratuak:** 15.000 € – 45.000 €
- **Segurtasuna eta integrazioak:** 5.000 € – 15.000 €
- **Probak eta kalitate-kontrola:** 3.000 € – 8.000 €

Garapen osoaren kostu totala

**90.000 € – 150.000 €** artean, app guztiz funtzionala eta martxan jartzeko.

### KOSTU ALDAKORRA

Kostu aldakorak dira erabiltzaile kopuruaren arabera handitu edo txikitu daitezkeen gastuak. Gure proiektuan, kostu aldakorak izango dira, besteak beste, marketina eta publizitatea, ordainketen kudeaketa, lege-betebeharrak eta erabiltzaileei arreta emateko gastuak. Erabiltzaile gehiago badaude, kostu hauek handitu egingo dira.



## ESKALA EKONOMIKOA

Erabiltzaile kopurua handitzen den heinean, eskala-ekonomiak lortu ahal izango dira. Horrek esan nahi du erabiltzaile gehiago izanda, kostu bakoitza txikiagoa izan daitekeela, eta horrela proiektua errentagarriagoa bihurtuko dela.